

Ilargiaren istorioak kontagai Alegian

ALEGIA. DV. Alegiatik ikusten al da ilargia?, Joxe Mari Karrerek umeei bota zien galdera. Bai, ilargia leku guztietatik ikusten da!, txikien erantzuna. Oso ongi. Eta zer falta zaio ilargiari?, ipuin kontalariaren bigarren itauna. Isiltasuna nagusi Alegiako liburutegian. Jantziak falta zaizko ilargiari, biluzik agertzen zaigu ilargia, azaldu zien Joxe Marik.

Behin ilargia Lurrera begira zegoela konturatu zen bertan bizi zirenek oso soineko politak janzten zituztela. Zeruko jostunarengana joan zen eta soineko bat egin ziezaion eskatu zion. Honek neurriak hartu zizkion eta bost egun barru itzultzeko esan zion, inoiz egin den soinekorik ederrena egingo ziola aginduz.

Gaztetxo guztiak adi-adi zeuden Joxe Mariri begira, jostunak ilargiari egindako soineko hori nolakoa izango ote zen jakin nahian. Itzuli zen bost egun barru ilargia jostunarengana, hasi zen soinekoa probatzen, sartu zuen burutik, gero besoetatik... eta... pum!! Alde guztietatik lehertu zen soinekoa! (pum ' horretan umeeek baino salto handiago atera zuten beraiekin joandako helduek).

Jostunak berriz hartu zizkion neurriak ilargiari, jarraitu zuen Joxe Mari Karrerek ipuinarekin, eta handik bost egunetara berriz itzultzeko esan zion, munduko soinekorik ederrena egingo ziola. Itzuli zen, bada, ilargia bost egun geroago, hasi zen soinekoa janzten, sartu zuen lehenbizi burutik, gero besoetatik (zati honetarako entzuleak jada bigarren sustoaren zain zeuden), bultza zion soinekoari beheraxeago, pixka bat gehiago,... eta pum!!, berriz ere alde guztietatik lehertu zen soinekoa! (bigarren ' pum!! ' horrek oraindik ere batzuk ezustean harrapatu zituen).

Berriz ere neurriak hartu ondoren, handik bost egunera itzultzeko esan zion jostunak ilargiari. Baina laugarren egunean, jostuna buelta bat ematera atera zen, eta ilargia ikusi zuen. Orduan konturatu zen ezin ziola soinekorik egin.

Zergatik ezin zion soinekorik egin jostunak ilargiari? Inork ba al daki orain zergatik ateratzen den ilargia biluzik?